XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

6332

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 1ekoa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, bidaiarien hiri-garraioaren zerbitzu publikoa emateko Transportes Urbanos de Vitoria SA (Tuvisa) enpresak aurkeztutako 2012. urterako tarifak onartzeko dena.

Euskadiko Prezioen Batzordeak 2011ko abenduaren 1eko bilkuran hartu duen erabakiaren xedapen-zatia argitaratzen da, guztiek jakin dezaten.

ERABAKIA

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzan sarrera eman zaio Transportes Urbanos de Vitoria SA (Tuvisa) enpresak aurkeztutako eskariari. Eskari hori bidaiarien hiri-garraioaren zerbitzu publikoaren 2012. urterako tarifak berrikustekoa zen.

Bidaiarien hiri-garraioaren zerbitzuari dagozkion tarifak prezioak kontrolatzeko araudiari loturik daude, «autonomia-erkidegoko prezio baimenduak» modalitatean, ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuaren (ekainaren 8ko BOE, 139. zenbakia) 16.4 artikuluari jarraiki.

Euskadiko Prezioen Batzordeari dagokio eskumen hori, otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuak (otsailaren 16ko EHAA, 31. zenbakia) eta 2010eko ekainaren 15eko Aginduak (uztailaren 6ko EHAA, 128. zenbakia) xedatutakoa betez.

Aipatutako arauak ekonomia-oreka jakin bat lortzeko dira. Gainera, bizitza-kostuarekiko prezioak osatzeko tresnak zaintzeko ere badira.

2012. urterako aurkeztu diren tarifak berrikusteko espedientea aztertuta, tarifak nahikotzat jotzen dira eta zerbitzua ematearen kostu-egituraren barruko kontzeptuetara egokitzen direla uste da.

Horrenbestez, Euskadiko Prezioen Batzordeak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.– Transportes Urbanos de Vitoria SA (Tuvisa) enpresak aurkeztutako 2012. urterako tarifak onartzea, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Bidaiarien Derrigorrezko Asegurua barne direla. Hona hemen kontzeptuak eta zenbatekoak:

Arrunta	1,10
Bonoa	0,54
30 eguneko bonoa	29,00
65 urtetik gorakoentzat doan, eta % 66 edo gehiagoko ezgaitasuna duten pertsonak	0,11
% 33 eta % 66 bitarteko ezgaitasun duten pertsonak	0,11
Ikaslearen hileko bonoa	29,00
Joan-etorria	1,40
Gauekoa (dirutan)	1,80
Gauekoa (diru-txartela)	1,35

Bigarrena.– Erabaki honek 2012ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salari, hilabete biko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 1a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko burua,
JOSÉ LUIS HUALDE MAYO.